



NAZIOARTEKO ZUZENBIDE PRIBATUA NAZIOARTEKO KONTRATUAK

Unai BELINTXON MARTIN

AURKIBIDEA. I. Nazioarteko kontratua eta mundu mailako merkataritzaren ekonomia. 1. Nazioarteko kontratuaren garrantzia eta nazioarteko trukearen dilema. 2. Nazioarteko kontratazioa. Interesen presentzia. **II. Nazioarteko eskuduntza judiziala eta nazioarteko kontratazioa. 1215/2012 Erregelamenduko 7.1 artikulua.** 1. 1215/2012 Erregelamendua. Kontratu materiako foruak. 2. Foro berezia kontratu materiari. 1215/2012 Erregelamenduko 7.1 artikulua. **III. 1215/2012 Erregelamenduko 7.1 artikulua.** 1. Salgaien salerosketen kontratua. Betebeharra bete behar den lekua demandaren oinarria izango dena. 2. Zerbitzuak ematearen kontratuak. Betebeharra eman behar den lekua demandaren oinarri bezala. 3. 1215/2012 Erregelamenduko 7.1.b artikuluan jasota geratzen diren soluzio zuzenetatik kanpo geratzen diren kasuak. Beste kontratuak. 4. 1215/2012 Erregelamenduko 7.1 artikulua eta auzitegi eskuduna: metodo analitiko-distributiboa. **IV. Nazioarteko eskuduntza judiziala eta nazioarteko kontratazioa. Botere Judizialeko Lege Organikoko 22. Quinquies a) artikulua.** **V. Nazioarteko kontratuei aplikagarri zaien legea. Lex Mercatoria berria.** 1. Lex Mercatoria berria. Kontzeptua. 2. Lex Mercatoria berriaren teoria. 3. Lex Mercatoria berriaren teoriaren kritika eta gaitzespena. 4. Lex Mercatoria berria. Balio juridiko. **VI. Nazioarteko kontratueterako lege aplikagarria. Erroma I Erregelamendua. Lege hautaketa. Borondate gatazkaren autonomia.** 1. Erroma I Erregelamenduko 3.1 artikulua: Borondate gatazkaren autonomia. Kontzeptua. **VII. Aukeratu ezean kontratuari aplikagarri zaion legea. Zortzi kontratuak bikainak (Erroma I Erregelamenduko 4.1 art.). Alderdi orokorrak.**

I. Nazioarteko kontratua eta mundu mailako merkataritzaren ekonomia

1. Nazioarteko kontratuaren garrantzia eta nazioarteko trukearen dilema

Nazioarte mailan kontratua ondarezko balio eta aberastasunaren zirkulazioaren oinarritzko tresna juridikoa da. Honela azpimarratzen dute ekonomialari eta juristak. Nazioarteko kontratuak planetako ekonomia mugitzen du, eta gainera, produkzio-baliabideen zirkulazio egonkorra ahalbidetzen du. Era berean, nazioarteko merkataritzako ekonomia librearen testuinguruan, nazioarteko kontratua ekonomialarien arteko gauza, eskubide eta zerbitzuen trukeerako ezagutzen den gailu juridiko ezin hobea da.

Nazioarteko merkataritza kontratuaren garrantzia nazioarteko trukearen dilemagatik eratorria da. Dilema hau hain ezaguna den gatibu dileman oinarrituta dago, hortaz, honek nazioarte kontratazioan duen eragina aztertzea ezinbesteko bilakatzen da:

1. Traba juridiko-publikoak nazioarteko trukeei. Bi herrialde ezberdinetan egokituta dauden bi subjektuen arteko nazioarteko komertzioa, eta ondasun, zerbitzu eta eskubideen trukea ahalbidetzeko nazioarteko elkartrukeetan oztopo juridiko-publikorik ez egotea edota oso ahulak izatea beharrezkoa da. Inportatzerako edota esportatzerako garaian muga-zerga handiak ezarriz gero enpresentzako ez da errentagarria izango, ehuna, inportatzea edo esportatzea adibidez. Hala ere, traba juridiko-publiko horiek ezabatzeak ez du bermatzen Estatu ezberdinetan egoitza duten enpresa eta norbanakoek ondasun, zerbitzu eta kapitalak beren artean trukitzea.
2. Barne edo nazionalak diren salerosketa trukearen dilema. Guztiz nazionalak diren salerosketetan, aldeek prestazio eta betetze edo ez betetzearen oinarriak arautuko duen Zuzenbide nazional aplikagarria ziurtasun osoz ezagutzen dute. Kontratua ospatu eta betetzen den testuinguruko Estatuko Zuzenbidea, kontratuko aldeek egoi-



- tza duten herrialdeko Estatuko Zuzenbidea, izango da kontratuari aplikagarri izango zaion Zuzenbidea. Estatuak, bere auzitegi, autoritate eta Zuzenbidearen birtartez aldeei konpromiso eta kontratuen betebeharrak bermatuko die. Guzti honi esker, subjektuek elkartrukea areagotuko dute, espezializazioa indartu, baita beren ondasunak handitu ere. Alabaina, fenomeno hau Estatu bakoitzaren barnean soilik burutzen da (Estatu batetako Botere Publikoek Estatuko arau juridikoak soilik beren testuinguruan bermatu baititzakete).
3. Nazioarteko salerosketa trukeen dilema. Elkartrukearen dilema, gatibu dilemaren proiektua dena, nazioarte mailan modu biziagoz aurkezten da. Hots, ez dago mundu mailan komuna den Zuzenbide pribaturik, ezta hau aplikatuko duten nazioarteko auzitegirik ere ez. Ez dago eroslea den “A” subjektuari (egoitza soziala Madrilen duena), “B” subjektu saltzaileak (egoitza soziala Berlinen duena) kontratuan zehazturikoa beteko duela bermatuko duen Mundu mailako Zuzenbide pribaturik. Ordea, antzak diren estatu ezberdinetako Zuzenbide nazionalak ditugu. Mundua Estatuetan banatua egoteak, norberak beren Lege eta auzitegiekin, nazioarteko salerosketari kostu gehigarriak eragiten dizkio. Inork ezin dio inori ziurtasunik bermatu nazioarte mailan ez baitago inolako Zuzenbide mundialik, ezta jurisdikzio mundialik ere ez. Nazioarte mailan salerosketa edota trukea egitea barne merkataritza batean egitea baino zailago eta arriskutsuagoa bilakatzen da, aldean arteko trukean betebeharrak bermatzeko zein Zuzenbide nazionala izango den aplikagarri ziur ez baitakigu. Hasiara batetan behintzat inork ez baitaki zein izango den nazioarteko kontratua arautuko duen Zuzenbide nazionala.
 4. Gatazka arauak eta nazioarte mailako trukeen dilemari soluzioa. Gatazka arauak nazioarte mailako trukeen dilema behar bezala konpontzen du. Alegia, gatazka arauak nazioarteko salerosketa eta trukeetan segurtasun legala betetzen du, honek zehaztuko baitu aldean arteko kontratua arautuko duen ordenamendu juridikoa. Gatazka arauak Zuzenbide estatal bakarra zehazterako garaian nazioarteko kontratua Zuzenbide estatal horren menpe geratzen da. Momentu horretatik aurrera, kontratuan parte hartzen duten aldeek jakin badakite bere kontratua Zuzenbide estatal bakar eta zehatz baten menpe geratzen dela, Zuzenbide nazionala, zein atzeritar Zuzenbidea izango dena.
 5. Gatazka arauak, nazioarteko kontratuari aplikagarri zaion Zuzenbidea eta gatazka-kostuen murrizketa. Nazioarte kontratuko oinarrian aurkitzen den trukea bermatzeko edota areagotzeko gatazka araua kontratatzaileentzat kostu txikiena dakarren Zuzenbide estatalera zuzentzea beharrezkoa da. Modu honetan gatazka-trukeetan kostuak murrizten direlarik.

2. Nazioarteko kontratazioa. Interesen presentzia

Nazioarteko kontratazioa garrantzi handiko sektorea da enpresa eta merkatarientzat, baita Estatuentzat ere: 1) Norbanakoentzat, azaldu dugun moduan, ogasun, zerbitzu eta eskubideen nazioarteko trukea bermatzeko kontratua da tresna egokiena. Definizioz, truke oro parte hartzen duten aldeei on egiten die eta ez soilik kontratuan parte hartzen duen alde bakar bati; 2) Estatuentzako nazioarteko kontratuak garrantzia handiko sektorea da, bereziki hainbat nazioarteko kontratuetan Estatu horien menpe dauden interes publikoetan eragina badute. Nazioarteko kontratu batek herrialde bateko ordainketen balantza desoreka dezake, herrialde batetako ingurumen-aberastasunean eta historia-ondarean eragina izan dezake, eta abar. Estatuak arreta handiz jokatzen dute prozesu ekonomiko handien aurrean, baita herrialde batetik bestera egiten diren diru mugimenduetan ere, beti ere Estatuako oreka eta bere interes publikoak mantentzeko xedearekin.





II. Nazioarteko eskuduntza judiziala eta nazioarteko kontratazioa. 1215/2012 Erregelamenduko 7.1 artikulua

1. 1215/2012 Erregelamendua. Kontratu materiako foruak

Espainiar auzitegien nazioarteko eskuduntza judiziala kontratu materiaren tresna legal ezberdinen bitartez arautzen da. Garrantzitsuenak 1215/2012 Erregelamendua da. Erregelamendu honen arabera, espainiar auzitegiak, kontratu materiaren, eskumen osoa izango dute ondorengo kasuetan:

1. Bere alde sumisio akordioa dagoenean → Sumisioa agerikoa (1215/2012 Erregelamenduko 25 art.) edota ezkutukoa (1215/2012 Erregelamenduko 26 art.) izan daiteke.
2. Demandatuak bere egoitza edo helbidea Espainian duenean (1215/2012 Erregelamenduko 4 art.).
3. Demandaren oinarrian erreferentzia egiten zaion betebeharrak Espainian izan bada, edo bertan eman behar denean (1215/2012 Erregelamendua 7.1 art.). Erregelamenduko 7.1 artikulua hau, ondorengo 2007ko urriaren 30eko Lugano II Hitzarmeneko 5.1 artikularen testu berbera da.

2. Foro berezia kontratu materiaren. 1215/2012 Erregelamenduko 7.1 artikulua

1215/2012 Erregelamenduko 7.1 artikulua kontratu materiako foro berezi bat du. Foru horrek Europar Batasuneko Justizia Auzitegi, baita auzitegi nazionalen aldetik, jurisprudentzia oso aberatsa ekarri du, baita doktrinaren hainbat eta hainbat iruzkin ere eman dira. 1215/2012 Erregelamenduko 7.1 artikulua oso arau nahasia da, batzuen ustetan misteriozkoa; kaskarra beste batzuen ustez; eta beste aditu batzuen aburuz ezabatu beharrekoa araua. Aitzitik, beste aditu batzuen ustetan 7.1 artikulua 1215/2012 Erregelamenduko araurik garrantzitsuenak da. 1215/2012 Erregelamenduko 7.1 artikularen analisia hainbat datu zehaztea ekartzen du:

1. *Kontratu materiaren definizioa* → kontratu materiaren esanahia autonomoa eta 1215/2012 Erregelamenduaren berezko kontzeptua da. Auzi baten objektua kontratu materiakoa den ala ez zehazteko ez da Estatu kideen Zuzenbide nazionalen esanahietara jo behar.
2. *Estalitateko ekintzak* → 1215/2012 Erregelamenduko 7.1 artikuluan agerturiko kontratu foruak irisgarritasun objektibo zabala du. egiteko edota ez egiteko betebeharrak baten exekuzioaren inguruko auziak estaltzen ditu, kontratu bat bertan behera uzteagatik agerturiko erreklamazioak, kontratu baten interpretazioa ... Artikulu honen helburua kontratu baten inguruan sor daitezkeen auziak Estatu kide batetako auzitegi bakar batetan biltzea da. Alegia, 1215/2012 Erregelamenduko 7.1 artikulua kontratu berbera batetatik sor daitezkeen auziak ezagutzeko auzitegi bakar bati eskumena ematea du xede bezala.
3. *Nazioarteko eta lurraldeko eskuduntza judizialeko foroa* → 1215/2012 Erregelamenduko 7.1 artikulua nazioarteko eta lurraldeko eskuduntza judizialeko foro bat du. Artikulu horren lurralde auzitegi kompetentea zuzenki zehazten du. Auzitegi hori kompetente izango da proben gestioan erraztasuna dela medio.
4. *Demandatua Estatu kide batean helbideratua* → 1215/2012 Erregelamenduko 7.1 artikulua soilik aplikagarri izango da demandatua Estatu kide batetan helbideratua dagoenean, eta baita, helbideratua dagoenetik beste Estatu kide baten auzitegien aurrean demandatzen denean ere.
5. *Kontratu materiako foroaren funtsezko oinarria. Auzia eta auzitegi kompetentearen arteko gertutasuna* → 1215/2012 Erregelamenduko 7.1 artikulua, une oro, auzia eta auzitegiaren



arteko gertutasunean oinarritzen da. 1215/2012 Erregelamenduko 7.1 artikuluan zehazten den auzitegiaren aurrean jarri behar da auzitan, bereziki auzitegia auzitik gertuen kokaturik dagoelako. Modu honetan, bi ikuspuntutan Justiziaren administrazioa egokia bermatzen da:

- a. Ikuspegi pribatua: aldeek auzia auzitegi horren aurrean garatuko dela aurreikusi dezakete, modu honetan Justiziarako sarbidea kostu murrizak dakarke.
 - b. Ikuspegi publikoa: teorikoki, auzitegiak kasuaren inguruko instrukzio azkarrak eta sakona aurrera eramanez beharrezko probak egiteko kokaleku egokian aurkitzen baita.
6. *Betebeharraren zehaztasuna demandaren oinarri bezala balio duena* → 1215/2012 Erregelamenduaren 7.1 artikuluan arabera demandaren oinarri den betebeharra bete behar de Estatu kideko lekuko auzitegia izango da eskumena duena. Betebehar hori zehaztea ez da gauza erraza.

III. 1215/2012 Erregelamenduko 7.1 artikulua

1. Salgaien salerosketen kontratua. Betebeharra bete behar den lekua demandaren oinarria izango dena

Kontratu honen arabera, demandaren oinarria izango den betebeharra salgaien entrega da. Salgaien entregaren betebeharra eman behar den lekua, aldeek kontratuan adostu bezala, salgaiak entregatu diren edo entregatu behar diren Estatu kidea izango da. 1215/2012 Erregelamenduko 7.1 artikuluan salgaien salerosketen kontratuetatik datozen demanda guztiak leku horretako auzitegien aurrean aurkeztu behar dira, eta ez soilik merkantzien entregatik eratorritako demandak.

Salerosketa kontratuak ondasunak diruagatik elkar trukatzeko diren kontratuak dira:

Merkantzia entrega lekuaren kontzeptua → merkantzia entrega lekuaren kontzeptua 1215/2012 Erregelamenduaren arabera da. Beraz, bere esanahia Europar Batasuneko Zuzenbidearen arabera interpretatu behar da, ez da Zuzenbide estatualen kontzeptu juridikoetara jo behar. Zentzu honetan, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak betebeharren exekuzioaren lekua aldeek kontratuko klausuletan zehaztu behar dutela exijitzen du (besteak beste, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiko 2010eko otsailaren 25eko Sententzia, C-381/08, Cas Trim, FD 55).

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak egiten duen interpretaziotik ondorengo ondorioak aintzat izan behar ditugu:

- a) Exekuzio lekua zehaztea ahoz izenda daiteke
- b) Era berean, nahiz eta askoz ere zailagoa izan, exekuzio lekuaren ezkutuko izendatzea ere eman daiteke
- c) Leku zehatz baten entrega betebeharra duen ICOTERM baten bitartez merkantzia entregaren lekua ere zehaztu daiteke (adibidez, EXW = entrega saltzailearen lokaltan). ICOTERMS nazioarteko merkataritza erabilpenagatik kontsakturiko kontzeptuak dira, kasu honetan Nazioarteko Komertzio Ganbaragatik (CCI) eratuak, eta kontratuan klausula bezala sar daitezkeenak.

Kontratuan zehazturik ez dagoen entrega lekua → Kontratuan salgaien entrega lekua zehaztu ez bada, 1215/2012 Erregelamenduko 7.1b artikuluko lehen gidoia ez litzateke aplikagarri izan behar, beraz, kontratua arautzen duen Legera jo behar da bete ez den exekuzio beharrekote betebeharraren lekua zehazteko. Hala ere, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak hainbat interpretazio egin ditu. Ondorioz, 1215/2012 Erregelamenduko 7.1b lehen gidoiko arabera merkantzia entrega lekua honela finkatzen du, kontratuan klausula egin



ezean: *el lugar en el que las mercaderías hubieren sido o debieren ser entregadas materialmente para su transmisión al comprador.*

Salgaien salerosketa merkantzia entrega leku anitzekin → merkantzia entrega anitzeko salgaien salerosketa kasuetan hainbat egoera bereizi behar dira: 1) Estatu kide ezberdinetan entrega leku ezberdinak daudenean, eta irizpide faktikoen bitartez merkantzien entrega printzipala identifikatu daitekeenean, 1215/2012 Erregelamenduko 7.1b artikulua aplikatu daiteke eta leku printzipal horrek ere auzitegi kompetentea zehazten du. 2) Estatu kide ezberdinetan kokaturik dauden entrega leku anitzak badaude eta leku bakoitza Estatu kide horiekin beharrezko lotura erakusten badute, aktoreak bere demanda 1215/2012 Erregelamenduko 7.1b artikuluko lehen gidoiaren arabera aurkeztu dezake merkantzia entregaren edozein Estatu kideko auzitegien aurrea (Europar Batasuneko Justizia Auzitegiko 2009ko uztailaren 9ko Sententzia, C-204/08, Air Baltic, FD 36). 3) Estatu kide berbera batean entrega leku ezberdinak badaude, 1215/2012 Erregelamenduko 7.1b artikuluko lehen gidoia aplikagarria da. entrega printzipala ematen den lekuko auzitegia izango da kompetente. Entrega printzipala irizpide ekonomikoen arabera zehaztu daiteke. Entrega leku printzipala zehazteko irizpiderik falta bada, demandatzaileak berak hautatzen duen auzitegiaren aurrean jarri dezake demanda, honela zehaztu zuen Europar Batasuneko Justizia Auzitegiko 2007ko maiatzaren 3ko Sententziak, Color Drack, FD 42.

2. Zerbitzuak ematearen kontratuak. Betebeharra eman behar den lekua demandaren oinarri bezala

Demandaren oinarri den betebeharra zerbitzuak ematerena da. Zerbitzua ematearen lekua aldeek kontratuan itundutakoa izango da. Ondorioz, zerbitzu prestazioak eman behar diren Estatu kideko auzitegiak izango dira kompetente (7.1.b artikulua).

Zerbitzu prestazioaren kontzeptua → kontzeptu hau modu autonomo batean interpretatu behar dira 1215/2012 Erregelamenduaren berezko kontzeptu bat baita, beti ere *Forum Shopping*-a sustatzen duten interpretazio estatalak alde batera utziz. Zentzu honetan, zerbitzuen prestazio kontratuak, hauek betebeharrak, zein emaitzak sortzen dituztela ulertzen dute.

Alegia, zerbitzu prestazioaren definizio bat zehaztu dezakegu EBko Zuzenbidera jotzen badugu, konkretuki Europar Parlamentuko 2006/123 EB Zuzentaraura eta barne merkatuko zerbitzuen inguruko 2006ko Abenduaren 12ko Aholkura (Bolkestein Direktiba izenez ezagutzen dena). Definizioa honakoa da: kontratuak helburu orokor bezala eman, egin edo ez egin dakarren ekintza baten ekimena du, kostu-bidezkoa, dohainezkoa, edo irabazi asmoa duena, eta ez gauza baten propietatearen transmisioa.

Alde batera utzitako kontratuak → zerbitzuen prestazio kontzeptutik ondorengo kontratuak kanpo geratzen direla azaldu beharra dugu: 1) seguru-kontratu bezala ezagutzen diren zerbitzuen prestazio kontratuak kontsumitzaileekin eginiko kontratuak eta lan-kontratuak, 1215/2012 Erregelamenduan jasotako arauen menpe dauden kontratuak baitira; 2) salerosketa kontratuak eta eskubide-lagapen kontratuak, beren helburu orokorra ondasun edota gauza edo eskubideen abilezien transferentzia baita; 3) Patente, marka, *know-how* eta beste eskubideen lizentzia eta salerosketak.

Kontratu konplexuak → zerbitzu prestazioa eta ogasunen transmisioa une berean biltzen dituzten kontratu konplexuekin, berrezarpen kontratuak kasu, kontratuaren helburuaren arabeko kalifikazio bat egin behar da, kontratuaren betebeharrak orokorra zein den kontuan hartu gabe.

Zerbitzu prestazioaren lekuaren kontzeptua → kontratuan parte diren aldeengatik zehazturiko lekua izan behar da. Hainbat herrialdeetan egin beharreko zerbitzu prestazioen kontratuei dagokienean ondorengo ezberdintasunak bereizi behar ditugu: 1) Zerbitzu prestazio printzipala Estatu zehatz batetako leku batean egin behar bada, 1215/2012 Erregela-



menduko 7.1.b artikulua arabera prestazio zerbitzu printzipal horren lekuko auzitegiak izango dute eskuduntza. Honek auzia auzitegi kompetentearekin duen gertutasuna bermatzen du, hau izango baita auziaren funtsarekin lotura handiagoa izango duena. Kontratuko klausulek zerbitzu prestazio printzipala zein tokitan emango den jasotzeko aukera ematen ez badu, zerbitzua nagusitu den tokia izango da; 2) Zerbitzuen prestazio printzipala non emango den zehazteko aukera ez dagoenean, Estatu ezberdinetan kokaturiko aireportuen arteko ondasun edota pertsonen garraio-kontratuetan gertatzen den moduan, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak 1215/2012 Erregelamenduko 7.1.b artikulua interpretazio irekia egiten du bere baliagarritasuna mantenduz. Alegia, kasu hauetan, zerbitzu prestazioaren lekua irteera, zein iritsiera tokiak dira. Ondorioz, demandatzaileak demandatuaren aurkako ekintza irteera edota iritsiera lekuko Estatuan aurkitzen den auzitegiaren aurrean ekin dezake.

3. 1215/2012 Erregelamenduko 7.1.b artikuluan jasota geratzen diren soluzio zuzenetatik kanpo geratzen diren kasuak. Beste kontratuak

Aurreko puntuan agertzen ditun bi soluzioak, merkantzia salerosketetarako eta zerbitzu prestazio kontratuetarako erabiliak, baliagarri ez diren kasuak badaude. Kasu hauek bertan zerrendatzen ditugu:

1. Aldeen arteko arerioarenganako itunak. Aldeek, merkantzia salerosketa edo zerbitzu prestazio kontratua izan arren, auzitegi kompetentea merkantzia edota zerbitzu prestazioa eman den lekuaren bitartez ez zehaztea itundu dezakete.
2. Merkantzia salerosketa edo zerbitzu prestazio kontratuak ez diren beste kontratuak. Adibideak: *Joint Venture* kontratua, trukatzeko, eraikin-salmenta, akzioen edo partizipazio sozialen salmenta, ontzi-porturatze kontratua, jabetza industrial edo intelektualaren eskubideen lizentzia kontratua, eta abar.
3. Merkantzia salerosketak eta zerbitzu prestazioak, itunduriko merkantzia entrega edo zerbitzu prestazio lekua Estatu kide batetan ematen ez diren kasuak. Adibidez: merkantzia salerosketa entrega New York-en emango dena eta ordainketa Parisen, kasu honetan 1215/2012 Erregelamenduko 7.1. artikulua ez da aplikagarria.
4. Kontratuaren arabera Estatu kide ezberdinetako entrega leku anitz eta ugariak dituzten merkantzia salerosketa eta zerbitzu prestazioak. Merkantziaren entrega edo zerbitzu prestazioa Estatu ezberdinetako leku anitzetan egin behar bada 1215/2012 Erregelamenduko 7.1 artikulua ezingo du kontratu hau arautu. Ikuspegi ekonomiko batetik entrega lekua edota zerbitzu prestazio printzipala ematen den lekua identifikatu badaiteke eta merkantzia entrega edota prestazio zerbitzu lekuak anitzak badira, 1215/2012 Erregelamenduko 7.1 artikulua gertutasun ideia eta segurtasun juridiko ahulduko luke aldeak ez bailukete jakingo demanda sartu edota demandatuak zein auzitegiaren aurrean izan daitezkeen.
5. Merkantzia entrega lekua edota prestazio zerbitzu lekuaren zehaztasun falta salerosketa kontratuan edota prestazio zerbitzuetan. Kasu hauetan, 1215/2012 Erregelamenduko 7.1 artikuluko araua ere ez, ezingo da aplikagarri izan. Hala ere, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak 2010eko otsailaren 25eko epaiak, as.C-381/08, Car Trim, era oker batean, kontratuan klausula espezifikoak ageri ezean, 44/2001 Erregelamenduko 5.1.b (GARU 7.1.B 1215/2012 Erregelamenduko) artikulua arabera merkantzia entrega lekua “merkantzia erosleari entregatuko litzatekeen lekua” dela azaltzen du, nahiz eta leku hura kontratuan finkaturik ez agertu.

4. 1215/2012 Erregelamenduko 7.1 artikulua eta auzitegi eskuduna: metodo analitiko-distributiboa





1215/2012 Erregelamenduko 7.1 artikuluan jasotako soluzio zuzenak aplikagarri ez diren kasuetan eskumena izango duen auzitegia metodo analitiko-distributibo baten bitartez zehazten da. Honako metodoa Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak jurisprudentzia ugariarekin eskaturiko da, eta ondoren azaltzen diren puntuetan oinarritzen da:

1. *Ustez bete ez den betebeharraren exekuzio lekua eta kontratuaren Legea*: demandaren oinarri moduan jokatzen duen betebeharra (ustez bete ez dena) eman behar litzatekeen lekukoko auzitegia da konpetente. betebeharraren betetze lekua zehazteko kontratua arautzen duen Legea aplikatu behar da. Lege hau gaiaz ezagutzen duen auzitegiaren herrialdeko Nazioarteko Zuzenbide Pribatuaren arauen arabera ezartzen da. Arau hauek kontratua arautzen duen Legea estatala ezartzen duten gatazka arauak izan daitezke, eta honen arabera bete ez den betebeharra exekutatu behar litzatekeen lekua zehazten da. 1^{er} Adibidea: 2009ko Apirilaren 23ko Europar Batasuneko Justizia Auzitegiako Sententziak, Falco, ustez bete ez zen betebeharra ordainketa izan zen, eta austriar Legearen arabera, austriar gatazka arauaren arabera araturiko kontratua, Austrian exekutatu behar zela agertzen zuen, 44/2001 Erregelamenduko 5.1 artikulua arabera austriar epailea eskumen osoa zuela argi geratuz (7.1 1215/2012 Erregelamenduko gaur egun). 2. Adibidea: Italiar Zuzenbidean, bete ez den betebeharraren ekonomikoaren lekua hartzekodunaren egoitza da (Italiar Kode Zibileko 1182 artikulua). 3. Adibidea: Espainiar Zuzenbidean eta aldean zehaztasun gabeziaren aurrean, bete ez den betebeharraren lekua zordunaren egoitza da (Kode Zibileko 1171 artikulua). Hala ere, zenbait kasuetan hainbat arautegi legal aplikagarri izan daitezke, 1980ko Nazioarteko Merkantzien Salerosketaren Hitzarmena adibidez. Kasu honetan, Hitzarmenak, aldean paktua egon ezean, ustez bete ez den betebeharraren lekua zehaztuko du (57. artikulua). Auzian dagoen betebeharra exekutatu beharreko lekua zehazteko Espainiar ordeko Zuzenbidearen aplikazio zuzenak, eta ez kontratua arautzen duen Zuzenbidearena, akats nabarmena dakar.
2. *Kontratuaren auziaren dispersioa vs. kontzentrazioa*: Betebeharraren bakoitzak berezko exekuzio lekua dauka. Ondorioz, auzia herrialde batzuen artean sakabanatzen da. Hala ere, betebeharraren printzipal bat eta bigarren mailako beste bat emanez gero, prestazio printzipala exekutatu beharreko lekuko auzitegiak bigarren mailako hori ere ezagutuko du.

IV. Nazioarteko eskuduntza judiziala eta nazioarteko kontratazioa. Botere Judizialeko Lege Organikoko 22. artikulua

Nazioarteko tresna legalak aplikagarri ez diren kasuetan, espainiar auzitegien nazioarteko eskuduntza judiziala Botere Judizialeko Lege Organikoko 22. artikuluen arabera arautze da. 22. quinquies a) artikulua kontratu betebeharra Espainian jaio edota eman behar diren kasuetan espainiar auzitegiak konpetente izango direla zehatzen du. Botere Judizialeko Lege Organikoko 22. artikuluan agertzen diren foroak aplikagarri izateko ekintza kontratuzko bezala izendatzea beharrezkoa izango da. Botere Judizialeko Lege Organikoko 22. quinquies a) artikulua kontratu materian bi foro berezi ditu:

1. *Ospatze lekua Espainian denean*: Kontratua Espainian ospatu denean espainiar auzitegiak eskumen osoa izango dute. Absenteen arteko kontratuetan Kode Zibileko 1262. artikulua aplikatze da. Artikulu honek kontratua, paktuen bat aurkakorik esaten ez bada behintzat, eskaintza eginiko lekuan ematen dela agertzen du.
2. *Betebeharra eman beharreko lekua Espainian denean*: Exekuzio lekua kontratuan parte diren paktua izango da, beti ere kontratua arautzen duen Zuzenbidearen arabera baliagarri bada. Kontratuan exekuzio lekua agertzen ez bada, kontratuari aplikagarri zaion Legeagatik ezarriko da exekuzio leku hori. Bete beharreko exekuzio lekua kontuan hartzea beharrezkoa da demandaren oinarri baita. *Azalpena*: aurreko ager-



penak Botere Judizialeko Lege Organikoko 22. quinquies a Artikulua 1215/2012 Erregelamenduarekin parekatzen ditu. Bi legedi hauek 1968ko irailaren 28ko Bruselako Hitzarmenetik eratorriak direla jakinik, bere 7.1 artikulua kontratua ez betetzeagatiko demandaren oinarri bezala jotatzen duen exekuzioa bete beharreko lekuko auzitegiari eskumen osoa ematen zuela kontuan izan beharra dugu.

V. Nazioarteko kontratuei aplikagarri zaien legea. *Lex Mercatoria* berria

1. *Lex Mercatoria* berria. Kontzeptua

Lex Mercatoria berriaren kontzeptua oso argudiatua da. B. Goldmanek eginiko definizio klasikoa oso egokia da: *Lex Mercatoria* berria nazioarteko harreman komertzialen Zuzenbide espezifikoa da. Beste definizio egokia A. Frignanik eginikoa litzateke: *Lex Mercatoria* berria nazioarteko merkataritzan ohizko erabilpenen eta praktiken multzoa da, eta partikularrek beren harremanak lotura juridikoa duen *opinio juris*-arekin onartzen dituzte. *Lex Mercatoria* berria osatzen duten arauak Nazioarteko Hitzarmenetan, Lege estataletan, arbitral praktketan, merkataritza-usadio juridikoetan, merkatarik elkartean eginiko arauetan, eta abarretan biltzen dira.

2. *Lex Mercatoria* berriaren teoria

Lex Mercatoria berriaren teoria ezaguna ondorengo datuengatik bereizten da:

1. *Lex Mercatoria* berriaren osotasuna. *Lex Mercatoria* berria Zuzenbide Estatalen ordeko ordenamendu juridiko da. *Lex Mercatoria* berria nahikoa da nazioarteko kontratuak arautzeko. Erdi aroan *Lex Mercatoria* zegoen, nazioarteko salerosketetan Zuzenbide estatalen ordeko jotatzen zuen Zuzenbide arautzailea zelarik. Gaur egunean berriz, *Lex Mercatoria* berria dugu.
2. *Lex Mercatoria* berriaren sortzailea. Nazioarteko salerosketen operatzaileak, *Mercatorum* Elkartea edo Business Community nazioarteko legegile pribatu moduan jokatzen dute legegile estatal eta parlamentuak alde batera utzita. Merkatariek, bereziki boteretsuenek, XXI mendeko Big Corporations-ak, nazioarteko kontratazioa arautzen duen Zuzenbide transnazionalaren sortzaileak dira. XXI mendean legegileak ingelesez egiten dituzte legeak eta bere izena klase empresarialak da.
3. *Lex Mercatoria* berriaren edukia. *Lex Mercatoria* berria 3 edukiz osatua dago: a) nazioarteko salerosketa harremanen Zuzenbidearen Oinarriko Printzipioak. Garrantzitsuenak honakoak dira: *pacta sunt servanda* eta *rebus sic stantibus*, kontratuen exekutagarritasun eza eta klausula desleiala edo zuzengabeak, *culpa in contrahendo* kontratunegoziaketetan, fede oneko kontratuaren exekuzioa, legez kanpoko xedea duen edo eroskeria bitartez ospaturiko kontratuaren balio gabetasuna, fede oneko kontratua negoziatu beharra, *exception non adimpleti contractus*, aldeko kontratuari emandako kalifikazioagatik auzitegia loturarik ez izatea, *actor incumbit probatio*, kontratua ez betetzeagatik eratorritako kalteen (sortutako kalte edo lortu gabeko irabazia) muga, kontratuaren auztura jasan duen aldeko kalteak gutxiagotzeko neurriak har ditzake, merkaturiko prezioen arabera merkantzia ez entregatzegatik kalteen kalkulua, eta abar. b) Nazioarteko merkataritza praktikan beharrik erabilpen eta baliatze uniformeak. Honako erabilpen eta praktika ugari nazioarteko merkataritzan parte hartzen duten hainbat elkarteengatik bilduak izan dira. Adibideak: Kreditudokumentazioak biltzen dituzten Arau Uniformeak (azken idatzia 2006ean izan zena); Dokumentuen kobrantzaren inguruko Arau Uniformeak; edota Incoterms





2010, guzti hauek Nazioarteko Merkataritza Ganberagatik prestatuak. c) Nazioarteko merkataritzan arbitroek sorturiko arauak. Orokorrean arbitroak aurretiazko praktika arbitraletan emandako aurrekarietan oinarritzen ohi dira.

3. *Lex Mercatoria* berriaren teoriaren kritika eta gaitzespena

Lex Mercatoria berriaren teoria errefusatua izan behar da doktrinaren zati handi batek argudiatutako hainbat arrazoi direla medio.

1. *Lex Mercatoria* berria ez da Zuzenbide objektiboa. *Lex Mercatoria* berria sortzen duten merkatariek ez dira legegileak. Hori dela eta, hauek sortzen dituzten arauak ez dira Zuzenbide objektiboak. *Lex Mercatoria* berria ez da Estatuaren iturri sistemaren parte.
2. *Lex Mercatoria* berria ez da ordenamendu juridiko bakarra.
 - a. Ez da *Lex Mercatoria* berria bakar bat existitzen. P. Lagardek azaltzen duen moduan *Leges Mercatorie* anitzak daude: petrolio-kontratuarentako baliagarriak diren arauak ditugu, eraikuntza-kontratuarentako direnak, lehengaien salerosketarako kontratuarentako arauak, eta abar. Arauak hauek oso ezberdinak dira eta ez dute antzekotasunik mantentzen kasu gehienetan.
 - b. *Lex Mercatoria* berria nazioarteko zenbait kontratuen aspektu zehatzak arautzen dituzten, bereziki nazioarteko salerosketa kontratuenak, osatu gabeko arau ezberdinen bilduma bat da. *Lex Mercatoria* berria hutsune handiak ditu. Hori dela eta, soilik *Lex Mercatoria* berriagatik arauturiko nazioarteko kontratu bat ematea oso arraroa izan ohi da. Arbitroek kasu bat *Lex Mercatoria* berriaren oinarri eskusiboaren bitartez ebazten dutenean, berez, kasuarekin loturiko Zuzenbide estatalak *Lex Mercatoria* berriaren edukiekin lotuak daudela antzeman dute. Gainera, badaude kasuak non arbitroek arau bat asmatu eta *Lex Mercatoria* berriari egokitzen diote. Eta noski, argi dago arbitroek ez dutela inolako botererik legalik sistema juridiko bat asmatzeko.
 - c. *Lex Mercatoria* berria ez da ohiturazko Zuzenbidea. Hainbat autorek *Lex Mercatoria* berria erabilpen normatibo eta ohituren multzo bat dela defenditzen dute. Aitzitik, irizpide ezberdinak sortzen dituzten instantzia arbitral ugariak eta laudoen publizitate eskasia dela medio, arau juridikoen baterakuntza ezinezko egiten dute.
 - d. *Lex Mercatoria* berria egiazko eta baliozko sistema berreslea falta du. *Lex Mercatoria* berriaren zigorrak benetakoak baino ustezkoa izan ohi dira, merkatarien arteko boikota besteak beste. Nahiz eta zenbait kasuetan zigor neurri horiek baliagarriak izan ohi dira.
 - e. *Lex Mercatoria* berria, neurri handi batean, Estatuengatik sorturiko arau juridikoez baliatzen da, eta ez merkatariek sorturikoengatik. Merkataritza arloko adituek CVIM 1980 *Lex Mercatoria* berriaren arauak dituela baieztatzen dutenean, kontraesan handi batetan erortzen dira. Kasu hauetan ez dira *Lex Mercatoria* berriaren arauak jasotzen, Zuzenbide estatalako arauak baizik. CVIM 1980 nazioarteko hitzarmeneko parte diren Estatuaren Zuzenbideak biltzen baititu.

Laburbilduz, C.V. Barrren arabera *Lex Mercatoria* berria iturri juridiko bezala faltsua da, kontzeptualki nzehaztugabea eta ikuspegi politiko-juridikotik nahasia.

4. *Lex Mercatoria* berria. Balio juridiko

Behin *Lex Mercatoria* berriaren teoria errefusatua, *Lex Mercatoria* berria Ordenamendu juridiko bezala kontsideratua izateko *Lex Mercatoria* berria osatzen duten arauari balio





juridiko bat ematea proposatzen da. Guzti honi erantzun bat emateko hainbat arrazoi-mendu kontuan hartzen beharrezkoa dugu:

1. *Anzizkhoa ez den maila*: aldean auzirik ez dagoenean, hauek, beren kontratuetan, *Lex Mercatoria* berriko arauetara bidera daitezke. Modu honetan, Zuzenbide estatalak esandakoa osatzeko edota zehazteko arau multzo honetara lotu daitezke.
2. *Anzi arbitral maila*: arbitroen eskumena aldeengandik eratorria da. Zuzenbide arbitraje baten kasuan, inongo Estutuko sistema juridikoen zaintzaile ez direla kontuan izan beharra dugu. Hori dela eta, arbitroek gatazka horiek aldeek itunduriko arauen arabera ebartziko dituzte. Aldeek gatazka Estatu batetako legeren baitan edo ez ebartziko dela agertu dezakete, beti ere arbitrajea arauturiko arauak ematen diren Estatuan *Lex Mercatoria* berria Zuzenbide arautzaile moduan onartzen bada, Espainia kasu. Arbitroek aldeek zehazturiko *Lex Mercatoria* berriko arauak aplikatuko dituzte. Aitzitik, aldeek arau edota praktika egokiei egiten diete erreferentzia, ez *Lex Mercatoria* berriari modu orokor batetan. Arbitroek gatazka *Lex Mercatoria* berriko arauak aplikatuz ebartzi dezakete. Ez dute zertan inongo Lege estatalik aplikatu behar, ezta inolako orden publiko transnazionalik ere. Aldeetako batek autoritate publikoei inongo Lege estatalik aplikatu gabeko laudo arbitral baten exekuzio bultzatuz gero, autoritate estatal horiek ez dute arbitroek aplikaturiko Legea kontrolatuko eta laudo beraz, aplikagarri izango da. Hala ere, hainbat salbuespen ere badaude: a) Laudo horrek Estatuko Zuzenbideko oinarritzko printzipioak ezingo ditu inola ere urratu, hori gertatuko balitz, laudoa ez litzateke exekutatu nazioarteko orden publikoaren aurkakoa baita; b) Gainera, aurreko arrazoia dela bide laudoa autoritate estatalen aurrean eraso daiteke baliogabetasun-errekurtso baten bitartez.
3. *Estatuko anzi-maila*: Auzitegiak kasua dagokion estatuko Zuzenbide estatalak azaltzen dituen arauekin bat eginez epaituko du. Hori dela eta, *Lex Mercatoria* berriko arauak aplikagarri izateko auzitegi estatalak nazioarteko Zuzenbide pribatua aplikatzen duen heinean arau horiek aplikagarri izatea ahalbidetu beharko du. Hainbat ohar argitu beharra dugu:
 - a. *Lex Mercatoria* berriko zenbait arauen legezko erliebearen justifikazioa. Zenbait arrazoi bide nazioarteko Zuzenbide pribatuak *Lex Mercatoria* berriko arauak aplikagarri izatea ahalbidetzen du: a) *Lex Mercatoria* berriko hainbat arau nazioarteko merkataritza zuzenaren erregulazio juridikorako egokiak dira. Estatuetak Kode Zibiletan biltzen diren zenbait arau baino hobeak dira; b) *Lex Mercatoria* berriko zenbait arau nazioarteko kontratazioan maiztasunez erabiliak dira: INCOTERMS, dokumentazio kreditu eta Nazioarteko Merkataritza Kamerako kobrantzarako Arau edo Erabilpen Uniformeak, eta abar.
 - b. *Lex Mercatoria* berria aplikatzeko nazioarteko Zuzenbide pribatuaren hainbat tresna. Nazioarteko Zuzenbide pribatuak *Lex Mercatoria* berriko arauak aplikatzea ahalbidetzen du bi bide ezberdin jarraituz: a) Kontratatzaileen autonomia materiala. *Lex Mercatoria* berriko arauak aldeek arteko paktu pribatuen balioa dute, eta kontratuari aplikagarri izango zaie kontratua arautzen duen Legea baliagarri ematen duen bitartean (Espainian kasu, Kode Zibileko 1255 art.); b) *Lex Mercatoria* berriko zenbait arauen izaera juridikoaren onarpena. Kasu zehatzetan, *Lex Mercatoria* berriko zenbait arau Zuzenbide objektiboko hainbat arauen mailan jartzen dira. (Adb. CVIMko 9. art. eta 44/2001 Erregelamenduko 23. art.).



VI. Nazioarteko kontratueterako lege aplikagarria. Erroma I Erregelamendua. Lege hautaketa. Borondate gatazkaren autonomia

1. Erroma I Erregelamenduko 3.1 artikulua: Borondate gatazkaren autonomia. Kontzeptua

Erroma I Erregelamenduan, *Lex Contractus* zehazteko lehen konexio puntuan borondate gatazkaren autonomia da. Borondate gatazkaren autonomia kontratatzaileak duten zuzenbide subjektiboa da, egiten ari diren kontratua arautuko duen Lege aplikagarria zehaztean datza. Alegia, Erroma I Erregelamenduko 3.1 artikulua kontratua aldeek hautatutako Legeagatik arautuko duela argi eta garbi zehazten du.

VII. Aukeratu ezean kontratuari aplikagarri zaion legea. Zortzi kontratuak bikainak (Erroma I Erregelamenduko 4.1 art.). Alderdi orokorrak

Legea aukeratu ezean, egin beharreko lehen ekintza kontratua sailkatzea izango da. Kontratu hau Erroma I Erregelamenduko 4.1 artikuluan jasotzen diren zortzitariko kontratu batetakoa bada, arau horrek, automatikoki, kontratua zein Lege estatalek arautuko duen zehaztuko du. Zortzi kontratuak eta beren Lege aplikagarriak ondorengoak dira:

1. *Salgaien salerosketa kontratua* saltzaileak ohiko bizilekua duen herrialdeko Legeagatik arautuko da (Erroma I Erregelamenduko 4.1a artikulua).
2. *Zerbitzu prestazioen kontratua* prestatzaileak ohiko bizilekua duen herrialdeko Legeagatik arautuko da.
3. *Higiezin erreal Zuzenbide edo higiezin baten errentamendua objektu duen kontratua* higiezin aurkitzen den herrialdeko Legeagatik arautuko da.
4. Hala ere, aurreko puntuan zehazturikoa, *higiezin baten errentamendua erabilpen pertsonalerako sei hilabete jarraia epe maximoa duena* jabeak ohiko bizilekua duen herrialdeko Legeagatik arautuko da, beti ere errentatzailea pertsona fisikoa denean eta bere ohiko bizilekua herrialde berean duenean.
5. *Frankizija kontratua* frankiziatuak ohiko egoitza duen herrialdeko Legeagatik arautuko da.
6. *Banatze kontratua* banatzaileak ohiko egoitza edo bizilekua duen herrialdeko Legeagatik arautuko da.
7. *Enkante bidezko ondasunen salmenten kontratua* enkantea (subasta) ospatuko den herrialdeko Legeagatik arautuko da.
8. *Merkataritza erregularretan ospaturiko tresna finantzarioen inguruko kontratuak* merkatu hori arautzen duen Legeagatik arautuko dira.



Bibliografía

- ÁLVAREZ RUBIO, J.J., *Los Foros de competencia Judicial internacional en materia marítima (Estudio de las relaciones entre los diversos bloques normativos)*, Bilbao, Departamento de Transportes y Obras Públicas del Gobierno Vasco, 1993.
- *Las cláusulas paramount: Autonomía de la voluntad y selección del Derecho aplicable en el transporte marítimo internacional*, Madrid, Eurolex, 1997.
 - *Derecho Marítimo y Derecho Internacional Privado: algunos problemas básicos*, Servicio del Gobierno Vasco, 2000.
- BESES MIGUEL, R. Y BESES MIGUEL M.D., *Transporte, Compraventa y Responsabilidades: aspectos nacionales e internacionales*, Madrid, Edisofer S.L., 2005.
- BROSETA PONT, M., *Manual de Derecho Mercantil*, Madrid, Tecnos, 2013.
- CALVO CARAVACA, A.L., y CARRASCOSA GONZÁLEZ, J., *Las Concentraciones de empresas*, Madrid, Editorial Colex, 2006.
- Calvo Caravaca, A.L., y Carrascosa González, J., *Derecho Internacional Privado*, vol. I, 18ª ed., 2018, Comares, Granada
- *El control de las concentraciones de empresas en Europa*, Madrid, Universidad Juan Carlos III y Boletín oficial del Estado, 1999.
- CARBONE, S.M., *Lo spazio giudiziario europeo: le Convenzioni di Bruxelles e di Lugano*, Torino, Giappichelli Editore, 1997.
- *Trattato di Diritto Civile e Commerciali: Contratto di trasporto marittimo di cose*, Milan, Dott. A. Giuffrè Editore, 1988.
- DIACONU, I., *Contribution à une étude sur les normes impératives en droit international (jus cogens)*, Ginebra, Institut international de Technologie et d'économie Apicole d'Apimondia, 1971.
- EMPARANZA SOBEJANO, A., *El boicot como acto de competencia desleal contrario a la libre competencia*, Madrid, Civitas, 2000.
- Fernández Rozas, J.C. y Sánchez Lorenzo, S., *Derecho Internacional Privado*, 10ª ed., Civitas, Madrid, 2018
- FERNÁNDEZ ROZAS, J.C., y SÁNCHEZ LORENZO, S., *Derecho Internacional Privado*, Navarra, Thomson-Reuters/ Civitas, 2013.
- *Sistema de Derecho económico internacional*, Navarra, Thomson-Reuters/ Civitas, 2010.
- FRAGA, F.J., *La responsabilidad contractual*, Madrid, Civitas, 1987.
- GONZÁLEZ CAMPOS, J.D., SANCHEZ RODRIGUES, L.I., ANDRÉS SAÉNZ DE SANTA-MARIA, M.P., *Curso de Derecho Internacional Público*, Cizur Menor (Navarra), Thomson Civitas, 2008.
- GONZÁLEZ CAMPOS, J.D. y FERNANDEZ ROZAS, J. C., *Derecho Internacional Privado español. Textos y Materiales*, Vol. I., Derecho judicial internacional, Madrid, 1992.
- GUARDANS i CAMBÓ, I., *Contrato Internacional y Derecho imperativo Extranjero*, Pamplona, Aranzadi, 1992.
- IRIARTE ÁNGEL, J.J., *El contrato de embarque internacional*, Madrid, Beramar D.L., 1993.
- *Propiedad y Derecho Internacional*, Madrid, Fundación Registral, 2007.
- MALINTOPPI, A., *Diritto uniforme e diritto internazionale privato*, Milan, Guiffirè, 1955.
- otros documentos del transporte*, Madrid, Civitas, 1992.
- SÁNCHEZ CALERO, F., *Instituciones de Derecho Mercantil*, Cizur Menor, Thomson Aranzadi, vol. II, 30ª ed., 2007.
- URÍA, R., *Derecho Mercantil*, Madrid, Marcial Pons, 1996.
- URÍA, R., y MENÉNDEZ, A., *Curso de Derecho Mercantil II*, Cizur Menor, Thomson-civitas, 2006.
- VIRGÓS SORIANO, M, y GARCIMARTÍN ALFÉREZ, F.J., *Derecho Procesal Civil Internacional, Litigación internacional*, Cizur Menor, Thomson- civitas, 2007.



CAPITULOS EN REVISTAS Y OBRAS COLECTIVAS

- ÁLVAREZ RUBIO, J.J., “La regla de especialidad en el artículo 57 del Convenio de Bruselas de 1968 (Reflexiones en torno a la Sentencia del TJCE de 6 de diciembre de 1994)”, *ADM*, vol. XII, 1995, pp. 273-312.
- “La regla de especialidad como cauce para superar los conflictos normativos entre el Derecho comunitario y los Convenios internacionales en materias especiales”, *La Ley*, 29 de octubre 2010, pp. 1-6.
 - “Derecho interregional, conflictos internos y Derecho Comunitario Privado”, *Nuevas Fronteras del Derecho de la Unión Europea*, Valencia, Tirant lo Blanch, 2012, pp. 41-45.
- BASEDOW, J., “The comunitarization of the conflict of laws under the treaty of Amsterdam”, *CMLR*, nº 37, 2000, pp. 687-708.
- BORRÁS, A., “Derecho Internacional Privado y Tratado de Ámsterdam”, *REDI*, vol. LI, nº2, 1999, pp. 383-425.
- “La comunitarización del Derecho Internacional Privado: pasado, presente y futuro”, *Cursos de Derecho Internacional de Vitoria-Gasteiz (2001)*, Universidad del País Vasco, Servicio de Publicaciones, 2002, pp. 285-318.
 - “La proyección externa de la comunitarización del Derecho Internacional privado: los datos del problema”, *La Ley*, nº 5611, 2002, pp.1-8
 - “Incidencia de la conferencia de la Haya y del Derecho de la Unión Europea en el sistema español de Derecho Internacional Privado”, J.J. Iriarte Ángel (coord.) *Propiedad y Derecho Internacional*, Madrid, Fundación Registral, 2007, pp. 227-228.
- CALVO CARAVACA, A.L., “El Derecho Internacional Privado de la Comunidad Europea”, *International law: Revista colombiana de derecho internacional*, nº 2, 2003, pp. 277-301.
- CARRASCOSA GONZÁLEZ, J., “La autonomía de la voluntad conflictual y la mano invisible en la contratación internacional”, *La Ley*, Nº 7847, de 27 de abril de 2012.
- DE MIGUEL ASENSIO, P.A., “Integración Europea y Derecho Internacional Privado”, *RDCE*, vol. 2, 1997, pp. 413-445.
- “La evolución del Derecho Internacional Privado Comunitario en el Tratado de Amsterdam”, *REDI*, vol. L, nº 1, 1998, pp. 373-376.
 - “El nuevo Reglamento sobre competencial judicial y reconocimiento y ejecución de resoluciones”, *La Ley*, XXXIV, nº 8013, 2013, pp. 1-4.
 - “La Ley aplicable en defecto de elección a los contratos internacionales: El artículo 4 del Convenio de Roma de 1980”, *La Ley*, XVI, 4 de abril de 1995, pp. 1-7.
 - “Contratación internacional: La evolución del modelo de la Unión Europea”, *Revista mexicana de Derecho internacional privado y comparado*, Nº 29, septiembre de 2011, pp. 67-89.
- DE MONTEYNARD, G., “Les juges nationaux face aux silences de la CMR: Jurisprudence française”, *ULR*, vol. XI, t. III, 2006, pp. 619-630.
- DUQUE DOMÍNGUEZ, J.F., “Constitución económica y Derecho Mercantil”, *La reforma de la legislación Mercantil*, Madrid, Civitas, 1979, pp. 63-110
- FERNÁNDEZ ROZAS, J.C., “Derecho internacional Privado y Derecho comunitario”, *RIE*, Vol.17, 1990, pp. 785-824.
 - “Los procesos de unificación internacional del Derecho privado: técnicas jurídicas y valoración de resultados”, *La unificación jurídica en Europa*. Seminario organizado por el Consejo General del Notariado en la UIMP (J.M. García Collantes, ed.), Madrid, Thomson Civitas, 1999, pp. 17-44.
 - “El Espacio de libertad, seguridad y justicia consolidado por la Constitución Europea”, D-195, *La Ley*, 2004, p. 16.
 - “La comunitarización del Derecho Internacional Privado y Derecho aplicable a las obligaciones contractuales”, *RES*, Nº 140, 2009, p. 600 y ss.
- GARAU SOBRINO, F.F., “La literalidad interpretada desde la coherencia del sistema. Las relaciones entre Reglamento Bruselas I y los convenios sobre materias particulares según el TJUE”, *Cuad.Der.Trans.*, Vol. 3, nº 1, 2011, pp. 270-281.
- GARCIMARTÍN ALFÉREZ, F.J., “El Reglamento «Roma I» sobre ley aplicable a las obligaciones contractuales: ¿Cuánto ha cambiado el Convenio de Roma de 1980?”, *La Ley*, Nº 6957, 30 de mayo de 2008.



- GONDRA ROMERO, J.M., “Integración económica e integración jurídica en el marco de la Comunidad Económica Europea”, *Tratado de Derecho comunitario europeo* (E. García de Enterría, J.D. González Campos, S. Muñoz Machado eds.), vol. I, Madrid, Civitas, 1986, pp. 275-312.
- GONZÁLEZ CAMPOS, J.D., “Diversification, Spécialisation, Flexibilisation et materialization des règles de Droit International Privé”, *R.desC*, t. 287, 2002, pp. 156 y ss.
- “El desarrollo del Derecho internacional privado: sus tendencias actuales y la reforma del sistema”, J.J. Iriarte Ángel (coord.) *Propiedad y Derecho Internacional*, Madrid, Fundación Registral, 2007, pp. 11-30.
- GIULLANO, M., y LAGARDE, P., “Informe sobre la ley aplicable a las obligaciones contractuales”, *DOCE*, N° 327, de 11 de diciembre de 1992, pp. 14-21.
- GUZMÁN ZAPATER, M., “Cooperación civil y tratado de Lisboa ¿Cuánto hay de nuevo?, *La Ley*, 2010, n° 7479, pp. 713 y ss.
- “Cooperación judicial civil y Tratado de Lisboa: entre consolidación e innovación, *Revista General de Derecho Europeo*, 2010, n° 21.
 - “El reglamento CE núm. 593/2008, del Parlamento Europeo y del Consejo, sobre ley aplicable a las obligaciones contractuales: régimen general, contratos de consumo y contrato individual de trabajo”, *Aranzadi civil*, n° 2, 2009, pp. 2257-2286.
- IRIARTE ÁNGEL, J.L., “Conflictos de leyes internos: notas fundamentales de la situación actual”, *Jado: Boletín de la Academia Vasca de Derecho*, n° 18, 2009, pp. 53-94.
- REQUEJO ISIDRO, M., “West Tankers: otra vez no a las antisuits injunctions”, *Revista de arbitraje comercial y de inversiones*, Vol.2, Madrid, 2009, pp. 428-438.